

Vitoria-Gasteiz, 2019ko apirilaren 13a

Vitoria-Gasteizen, Vicente Abreu elkarte-federazioan, **EZE**ren Ohiko Batzar Orokorra egin da 2019ko apirilaren 13an, bigarren deialdian bilduta, 25 bazkidek parte hartuta –bertan direla edo behar bezala ordezkaturik–, Itxaso Olábarri buru dela.

Bilkura 11:00etan hasi da, Mireia Apraiz **EZE**ko zuzendariak bertaratuei ongietorriko hitz batzuk zuzendurik, eta gai-zerrendari lotu zaio:

1

Aurreko batzarraren akta irakurri eta, hala badagokio, onestea

Akta bazkideei lehenago ere eskuratu zitzaenez, bertan daudenei galdetu zaie ea beharrezkoa den berriz irakurtzea ala ez, eta, hala ez dela iritzita, bozkatu egin da. Aho batez onetsi da.

2

2018. urteko txostena irakurri eta, hala badagokio, onestea

Bertan daudenei gogorarazi zaie badirela urte batzuk urteko txostena elkartearen webgunean eskuragarri egoten dela, bazkide guztiek kontsultatu ahal izateko.

Hartara, puntu nagusiak aipatu dira, proiektio baten laguntzaz.

Elkarteak urtean zehar aurrera eraman dituen ekintza guztiak adierazi dira banan-banan, hala bazkideei zuzendurikoak nola sentibilizazio eta prestakuntzakoak. **EZE**k antolatutako jardueretan bazkideen parte-hartzea jaitsi dela nabarmendu da, eta mahaitik animatu dute erakargarriak eta interesgarriak iruditzen zaizkien proposamenak proposatzera.

Bukatzeko, urteko txostena bozkatzeko proposatu, eta aho batez onetsi da.

3

2018. urteko kontuen egoera eta 2019. urterako aurreikuspena irakurri eta, hala badagokio, onestea

2018ko emaitza-kontua azaldu da, eta emaitza positiboa zein balantze saneatua dituela nabarmendu da, etorkizunari kaudimenez aurre egiteko moduan. **EZE** irabazi-asmorik gabeko erakunde bat denez, metaturiko mozkinak ez dira banatzen; horren ordez, 2019ko aurrekonturako erabiliko dira. Aurreko urtekoaren antzeko aurrekontu bat aurkeztu da, sentibilizazio eta prestakuntzako jardura eta ekintza ugariak, baina zuhurtasunezko ildotik irten gabe.

Bukatzeko, txosten ekonomikoa bozkatzeko proposatu, eta aho batez onetsi da.

4

2020. urterako kuota proposatzea eta, hala badagokio, onestea

Mahaiak egoki deritzo, aurkeztutako kontuak ikusita, 64 euroko kuota mantentzeari 2020rako. Bozkatu, eta proposamena aho batez onetsi da.

5 Zuzendaritza Batzordeko kargudunak berritzeko eta berriz hautatzeko proposamena

Berrautapenera, 2019. urterako zuzendaritza-batzordeko proposamen hauek aurkeztu dira:

EZEko Zuzendaritza Batzordea

Batzordeburua: Itxaso Olabari

Batzordeburuordea: Ibón Muñoz

Idazkaria: Raquel García

Idazkariordea: Isabel Iturbe

Diruzaina: Eider Robles

Batzordekidea: Idoia López

EZEBIko Zuzendaritza Batzordea

Batzordeburua: Itxaso Olábarri

Idazkaria: Raquel García

Diruzaina: Eider Robles

EZEGUIko Zuzendaritza Batzordea

Batzordeburua: Elena Torres

Idazkaria: Cristina Antón

Diruzaina: Ana Lozano

EZEBAKo Zuzendaritza Batzordea

Batzordeburua: José Miguel Calvo

Batzordeburuordea: Mercedes Gómez

Idazkaria: Virginia Landa

Diruzaina: Susana Valor

Kide guztiei eskertu egin zaizkie joan den urtean emandako laguntza zein egindako lana.

Zuzendaritza-batzorde proposamenak aho batez onetsi dira.

6

Bazkideek aurkeztutako proposamenak irakurri, eztabaidatu eta bozkatu, halakorik aurkeztu bada

Ez da proposamenik aurkeztu, eta ez da egon, hortaz, ez eztabaidarik ez bozketarik.


7

Galde-eskeak

Mahaiak hasiera eman dio bertan direnek egindako galderen eztabaidari.

Eta aztertzeko beste gairik ez dagoenez, 13:30 direnean, batzarra bukatutzat eman da, Vitoria-Gasteizen, 2019ko apirilaren 13an.

BATZORDEBURUAK O.E.



Stua.: Itxaso Olábarri

IDAZKARIAK O.E.



Stua.: Raquel García

Batzarra bukatutakoan, bertaratuen artean ogia egiteko makina bat zozkatu da, ZERO GLU markakoa, eta gero **EZEBAK** glutenik gabeko luntx batera gonbidatu ditu.